Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Jesus Enbil Urdanpilleta

Qiartzun, Gipuzkoa
(1940-2018)



Aurkibidea

Biografia



Maria Jesus, baserrian jaio eta hazia izaki, gaur egun galtzen ari den baserriaren lekukoa izan zen: nekazaritza guneaz gain, instituzio eta ohitura zaharren gordailu den baserriaren lekukoa. Amonarekin eta osaba-izebekin hazi zen, eta oso txikitatik baserriaren ardura izan zuen. Ergoien auzora ezkondu eta bere bizitza gehiena bertan egin bazuen ere, Gurutze auzoa ezin ahaztu. Gurutze auzoa eta bere jaiotetxea, Saastiarrene.

Zintak

OIA-028

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-12
- **Iraupena**: 54 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-029

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-14
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-030

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-14
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-033

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-20
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-034

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-20
- **Iraupena**: 60 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

OIA-038

- **Proiektua**: Oiartzuarren baitan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Lardi, Ane - Toledo Lardi, Maitane
- **Data**: 2007-06-27
- **Iraupena**: 50 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Lardi, Ane

Pasarteak

1. Mojen eskola

- **Erref**: OIA-028/002
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:04:10. **Bukatu**: 00:06:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Kaleko mojen eskolara joaten zen, Gurutzetik oinez. Orain Manuel Lekuona Biblioteka dagoen tokian zeuden mojak. Eskolaz gain, zaharrak ere zaintzen zituzten. Zortzi urtera arte mutilak eta neskak batera ibiltzen ziren. Baina gero mutilak beste tokietara joaten ziren eta neskek segitzen zuten. Eskola beraiek garbitzen zuten, baina superiorak etortzen zirenerako garbiketa sakonagoa egin behar izaten zuten.

Transkripzioa
- Bai.

- Noa joten ziñan?

- Monjeta.

- Kalea?

- Kalea. Oiartzungo... Kalea, oan zea Don Manuel bi... Len biblioteka don leku hortan zozten monja Merzedariak eta... Haik eukitzen zittuten orduko e... erareko person batzun zaintze zittuten, bertan eukitzen zittuten eta geo... Lembiziko plantan zozten bi eskola. Bat hasiyeretikan komuniyo ttikiya iñ artekuk, han neskak eta mutillak ibiltzen giñan eta geo, zortzi urte ingurun mutikuk handikan atera in ber izaten zuten eta nexkak pasatzen giñan beste eskolara, eskola haundiyagoa, adiñ gehiyoko eskolara. Eta bitan genittun bi monja, eskola ttikiya saten geniyonan Sor Maria Luisa eta eskola haundiyan Sor Maria Elena. Eta han hori, bukatu arte. Eta geo e... Zea, urtian behin tortze 'izkigun superiorak urte guziyan intako lana haik baloratzen ziguten eta... Orduko itten genun eskola dena garbittu. Urte guztiyan guk garbitzen genun eskola, biño superiorak torri ber zuten egunero, oi... Egun hartako itten genun, bueno uan esango genuke bezela, liempieza generala. Eskola dena garbittu eta...

2. Eskolan zigortua

- **Erref**: OIA-028/004
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:06:20. **Bukatu**: 00:10:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Oso kontentu ibili zen eskolan, asko jostatzen ziren. Zigortu ere egiten zituzten. Bera ere zigortu izan zuten. Lotsa handia pasatu zuen eta etxera eraman behar zituen enkarguak egin gabe gelditu zelako kezka galanta ere bai.

Transkripzioa
- Hoi da, saten ai ziñan garbittu 'ta...

- Bai...!

- Berriz san 'zazu!

- Bai, ba hori. Guk urte guztiyan geonek garbitzen genun eskola eta geo superiorak etorri ber zineko, pues hobekiyo garbitzen genun. Uan saten den bezela, liempieza jenerala ingo bagenuke bezela. Ordun etortzen zin superiora haik, eta... Denak 'o gehiyenak 'o denak prepatua eukitzen genun haikentzako ongi etorriya, kantatzen geniyon eta gen ongi etorriya itten geniyon eta geo ba... Haik jartzen zizkiguten... Ematen genun lan bakotxetikan pizarrea atera eta prueba batzuk eta... Bueno, gaiñekun e... Oso kontentu ibilli izandu naz ni oso gustora eskolan, e... Hango launakin jostatu 're asko itten genun eta bai, e... Erabat esateko, oso gustora, kontentu. Izaten zin, izaten genittun gen kastiguk, gen zeak, esan nahi nuke... Kastigatzen ziguten, miño kastigatzen ziguten zerbatt itten genulako! Ni goguan geldittu izandu dut egun batin pizarran in ber genun zea, e... Hiru 'ro lau artin lana eta genun bat falta, komonea 'ro jon zelako. Eta nik esan nun: " ¡Ba, si no viene que se fastidie!" eta monjak entzun. Eta... eguardiyan, eguardiyan zea bestik itxea bazkaltzea eta ni eta beste bi monjak kapilla zuten goiko pisun eta beák lembiziko plantan bazkaltzen zuten eta bizimodua itten zuten eta geo bazkal ondorin joten zin errezatzea kapillara. Eta jarri ziguten lembiziko pisutikan azkeneko bittartin guri eskailleratan kastigo eta geo beák zazpi monja zin eta zazpiyak guen ondotikan pasa eta kapillara errezatzea. Eta netzako kastigoik gorrena hora izandu zen. Denak han ikustia han kastigatua. Eta geo... E... Madre superiora 'ro saten geniyona, monjan buru itten zuna kapillatikan atera 'ta torri zen eta esan zin nei urruti bizi nitzala eta joteko itxea eta bazkalduta tortzeko berriz. Eta... geo e... Nahiko apurua pasa nun, zertikan eskolatik atetzen nitzanin nik enkarguk eamaten nittun itxea eta ni handikan kastigua hura ordua biño lenotikan altxatu zin superiorak, biño orduko Antoneneko denda itxiya! 'Ta ez dakit nola moldatu nintzan itxian esateko enkargoik gabe zertik jon nintzan, zertikan badakit ez nula esan kastigatua eondu nitzala. Bai.

- Zerbatte asmatu zenun!

- Zerbatte asmatu nun. Zer ez dakit, biño zerbatte asmatu nula bai.

- Eta san bazenun kastigatua...

3. Kanpoan errieta, etxean errieta

- **Erref**: OIA-028/005
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:10:10. **Bukatu**: 00:13:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Arrazoia eduki edo ez eduki, haurrei errieta asko egiten zitzaien. Bai eskolan zigortuz gero eta baita adineko norbaitek errieta eginda ere. Gurasoekin ez zen orain bezala hitz egiten. Helduak hitz egiten ari baziren, haurrak bidali egiten zituzten ez entzuteko.

Transkripzioa
- Eta san bazenun kastigatu in zizutela? Errita igual? 'O...

- Bai, ordun... Ordun... Arrazoiya baldin bagenun ta ez bagenun, eta zea gehiyokin, arrazoi gehiyokin beántzako eskolan kastitu zitela esatia netzako 're hala izango zen itxian. Gutxinin bintzat errita. Eta berdin pasatzen zen baita 're adiñeko personakin. Nahiz arrazoiyikan gabe zerbatte itten baziguten 'o saten baziguten, hura ahal baldin bazen hobe itxian 'o gurasuri ez esatia! Zertikan oso gutxitan arrazoiyari kaso ingo ziyoten, gehiyo ingo ziyoten zeiñek esan zun 'ta zeiñ zen persona hori. Bai.

- 'Ta aittu aittu´re gutxiyo, uan bezela ez.

- Ez, ez. Ez zen aitzen eta... Ez zen uan bezela hizketan aitzen gurasukin eta... Bueno, e... Esateko iñorrekin ez. Eta geo gaiña beste ohittura bat bazen, guen itxian behintzat, e... Beák ben artin ai baldin bazin e... Hizketan zerbattegatikan ni biali itten ziten beák zozten lekutikan!. Bai. Ez zen uan bezela hau gertatu da, 'o itxeko bateri hori gertatu zaiyo 'ro... Ez!. E... Ixilka pasatzen zen dena. Eta... Karo hoi netzako oso gorra zen! Zertikan igual izango zen gauz bat nik kompreinttu nittekena, 'o... Hura entetuta lasaiyuo eongo nitzana, miñon geo bialtzen zizuten eta ez zenekiyen zertik!. Ez zenekiyen. Eta geo enteatzen baldin baziñan, entetzen ziñan handikan demborata, 'o familiko batek esan zizulako zer gertatu zen, 'o bestela zu bittarti hartan e... Tortzen zizun hura 'o iziñ asmatuikan, "biño zer 'te zen ba nik iziñ aittu nun gauz hori" 'o... . Bai.

- 'Ta karo, 'ta horregatik galdetzen 'ta atrebittu ez.

- Ez, ez. Konfintzikan, konfintzikan ez, ez. Batez konfintzikan, 'ta... Hori e... Zembaitan pozikan esango, eta esanta lasaiyuo geldittuko nitzan ni neone 're 'ta... San ber niyon persona hura 're bai, miño... Bai, nik uste 'ut hortatikan gauz... Esan nahi nuke asko importik, importik ez zuten gauza askori e... Errezelo batekin gelditzen ziñan beti. Bai.

4. Ikasketak, bigarren mailan

- **Erref**: OIA-028/007
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:14:40. **Bukatu**: 00:17:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Eskolara joateak ez zituen lanetik libratzen. Eskolara joan aurretik egin beharreko lanak izaten ziren, eta eskolatik etorri eta gero egitekoak ere bai. Askotan lana eskolaren aurretik jartzen zen; batzuetan, lan asko izaten zelako, eta, beste batzuetan, eskolari eman behar zitzaion adinako garrantzia ez zitzaiolako ematen.

Transkripzioa
- Len esan zattutena, sei urte in 'ta geo hasi nintzan eskolan, biñon... Ni goizian... Goizin eskola joteko eamaten nun esnia. Eta itxe batea biño gehiyota gaiña! Hasitzen nitzan Bordaxabarren eta bukatzen nun e... Don Pablon itxian, Don Pablo Irigoiyen apaizan itxian. Eta geo e... Lentxio aipatu zattuten bezela baita 're, geo eskolatik atetzin berriz enkarguk itxea eamaten nittun. Eta hola gauz asko. 'Ta geo ioziñ abiso 'ro in ber baldin bazen, klaro, ordun batetik bestea jon ber izaten genun 'ta baita 're. 'Ta ni beti izandu naz oso beldurtiya illunduta, eta beti zea hoi izaten nun "jo, gaur nombattea jon ber 'te dut illunduta geo 'ro..." beldurra 'o... Zalantza hoi bai, beldurra, nik uste 'ut beldurra gehiyena.

- 'Ta e... Eskolan hasi ziñan sei urtekin?

- Bai. Sei urte inta, bai, zazpi gehiyo, aldeao izango zin. Bai.

- Eta... Eunero 'ta joten ziñan?

- Ez, ez, ez. E... Eta behin biño gehiyotan itxekuri atentziyua eaman ziyoten, hori, batzutan joten nitzalako eta askotan joten ez nitzalako. Ni zazpi urte ein biño pixkat lentxiotikan hasi eta hamasei urte arte jon nitzan, biñon hiru hillabetin urtian jon baldin banitzan beste betzitan igual ez. Eta hori, e... Askotan pes zerbatt iñ ber zelako. Egiya da, in ber izaten zen! Zertikan ordun e... Lan asko itten zen eta eskuz itten zen eta denantzako izaten zen lana. Biñon nik uste dut lanangatikan biño gehiyo zela importantziyik ez ziyotelako maten. Ez. Nei... E... Eskola joten nitzan garaiyian e... Itxian dotriña bakarrataz...

5. Dotrina, euskaraz

- **Erref**: OIA-028/008
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:17:10. **Bukatu**: 00:19:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Eskolara joaten ez zenez, amonak erakutsi zion dotrina. Baina amonak euskaraz erakutsi zion, eta, mojek gaztelaniaz erakusten zutenez, kezka zeukaten nahikoa prestatuta ote zegoen jauna hartzeko. Don Jose Luis Lekuona zen orduan apaiz.

Transkripzioa
- Dotrina bakarrataz kezkatzen zin. Bi komuniyo itten genittun, eta komuniyo ttikiy hoi itteko zortzi urte ingurun izaten zen, eta... Amona dotriña, beno, dotrika ez, errezatzen eakutsi zin. Eta geo hamabi urtetan komuniyo haundiya, eta klaro, ordun eskolan dena erdaraz itten genun eta... Eskolan jarri ziten, jarri ziyoten itxekuri aukera 'o erdaraz e... Ikasteko errezuk eta dotriña beák eakutsiko zitela, 'o euskaraz in nahi baldin banun itxian ikasi berko nula. Eta... Amonak eakutsi zin errezo denak eta dotriña dena buruz, béak buruz zekiyen. Ez zekiyen...

- Euskeraz zekin?

- Euskaraz. Eta... Ez zakiyen béak letzen 'ta eskribitzen, biñon dotriña dena buruz zakan, zakin eta... Dotriña eta elizako kantak, eta bertso zarrak. Haik aittuta ikasiyak izango zittun eta... komuniyo haundiya itteko garaiya torri zen eta... Ordun... Bestik, ne adiñekuk komuniyua ittea monjatatikan denak joten giñan, biñon zea, besti denak dotriña erderaz ''ta nik euskaraz. Eta... Apaiza Don Jose Luis Lekuona genun, arrontin apaiz ona, haundi bat. Enbil ttiki deitzen zin. Eta... Apaiz haundi bat, haundiya beziñ ona. Oiartzungua zen eta... E... Monjak kezkatuk, karo beák ez ziten dotriñik hartu 're itten eskolan eta bialtzen ziten... Bialtzen zuten nekin batin Estankoko Ana Mari, ni biño gutxi da zarraguo eta hora bialtzen zuten aber dotriña zea, dotriña bai 'te nekiyen. Eta horrelaxen in nun kumuniyua, amonak eakutsitako errezukin 'ta dotriñakin.

6. Eskolako kontuak

- **Erref**: OIA-028/009
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:19:35. **Bukatu**: 00:23:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Batzuek jaunartze handia eginda eskola ere utzi egiten zuten. Beste batzuek 16 urtera arte jarraitzen zuten. Maria Jesusek ere hamasei urtera arte jarraitu zuen, baina maiztasun gutxirekin. Kartilla, katona, entziklopedia ikasten zuten; denetik pixka bat. Behin diktaketa gaizki egin zuen eta zigortu egin zuten.

Transkripzioa
- Eta, hoi kumuniyo haundiyan.

- Kumuniyo haundiyan.

- 'Ta kumuniyo haundiya iñ 'ta seitzen al zen eskolan?

- Bai. Hamabi urtetan itten genun komuniyo haundiya eta hamasei urte arte jon nitzan ni. Biñon, ikasi oso gutxi. Oso gutxi zertikan... Hoi da, ez nitzalako joten. Bai.

- 'Ta dotriñatik aparte ta ze, ze ikasten zenuten?

- Ba... E... Hasitzen giñan kartillatikan. Kartillatikan... Zea lembiziko numeruk eta hoik ikasten genittun eta geo hurrena izaten genun katona. Bai. Katona izeneko liburu bat eta ya harrek jartzen zun e... Denetikan pixka bat. Zea bakotxetikan, asignatura sango... Uan saten dugun bezela, hortikan pixka bat kartzen zun gehiyo. Eta... Ya hori beste mailla bat zen. Eta... Ordun ya eskribitzen 'ta, 'ta geo ya hurrena izaten zen enziklopedia. Eta horrek ekartzen zun denetikan. Bai. Historia Sagradatikan hasi eta beno, gaiñeko zea, laburtua, laburtua biñon bai, gaiña liburu berin izaten zin historia eta hori dena, eta zeak, matematikak 'e bai, uan saten dugun bezela. bai, dena resumittua, biño hor ekartzen zun. Geo ya ordun hasitzen giñan ba... Problemakin 'ta hoi denakin. Ordun eun batin diktatu asko itten genun, e.... Monjak letu, Sor Maria Helenak eta guk diktatu. Eta nombatte ni aspertua nozen eta san nun: "ba! Ingo dut, hiru zeak, este... Hiru..." e...

- Lerro 'o linea?

- Ez, esaera zen: capital de España es Madrid 'ta nik san nun: "ba! Lembizi capital... España, capital 'ta Madrid", biño hasi nitzan orden hortan: España, capital, Madrid 'ta saten nun: "ba! Hola laburruo ingo nau" biñon hiru relotan 'o in nun ongi, biñon handikan betti Madiriz, Madiriz, Madiriz... dena! Bueno, beste kastigo bat!

- 'Ta ze izan zen kastigua?

- Ba berrogeita hamar aldiz ittea! Bai. 'Ta holako lanak eamaten nittunin itxea ittea.

- A! 'Ta itxian iñ ber!

- Itxian iñ ber! Bai! Klaro, e... Gaiñeko lanak in ber nittun eskolan eta hoik eamaten nittun itxea 'ta ni iñorrek ez zin galdetzen zer itten ai nitzan 'ta deus'e. Ni hantxe Madiriz-en tokiyan Madrid 'ta Madrid jartzen. Bai, 'ta gauz hoik uan gogoratzen 'ttut 'ta parre itteko gogua maten nau.

7. Jostaketak

- **Erref**: OIA-028/010
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:23:00. **Bukatu**: 00:25:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Jostatu pila bat egiten ziren: txingoka, kanikatan, gordeketan... Hilerri zaharrean ibiltzen ziren. Sokarekin jolas bat baino gehiago zituzten. Hankak larrutu arte ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Bai aski gezki pasa! 'Ta jostatu pilla bat itten genun! Jostatzen giñan, ibiltzen giñan txingoka, e... Kaniketan 'e bat eta... Jo! Kanika kristalezko bat konsegitzetikan zer ez 'te genun itten! Gehiyenak lurrezkuk 'o, lurrezkuk

ez, e... Buztiñezkuk izaten zin 'ta fuerte jotzen baldin bazeniyon hautsi itten zin. 'Ta kristalezko bat izatetikan... Jesus...! Bueno! Eta... Geo gordeketan 'e bai, eliz inguru hortan zimiteyo zarra esaten yoten hoi 'ta, soka saltun 're pila bat, nik abillidade haundiya nun zea, e... Saltoka, e... Alturan soka pasatzeko. Bai. Eta klaro, gonakin izaten giñan 'ta geo komeiya! Jartzen genittun eskuak lurrian 'ta hankak gora 'ta hankan muturrakin soka billatzen bagenun bajatzen genun 'ta pasa beste aldea. Eta goian eoten zin monjetan e... Zea... Adiñeko person batzuk, gutxi ioten zin, biño, 'ta gizonezkuk 'o baldin bazin igual ejuka 'ta, 'ta monjak: "ez ziztela berriz 'e aldi horta jon, zuzte elizan beste aldea han ibil zizte jostatzen!". Eta bai, nik billatzen baldin banun hankan muturrakin soka, aixa pasatzen nun, biño klaro, ttikiya nitzan 'ta kosta itten zin, biño... E... Hanka bernia, hankan aurria, azala dena harrotua soka, soka pasatzikin, pasatzen. Bai.

- Nola izaten zen ba?

- Soka alturaketan, bai, saloka 're ibiltzen giñan, biño geo baita 're ibiltzen giñan alturaketan. 'Ta klaro soka lurretik altxatzen hasi eta gora 'ta gora 'ta gora zuk altxatzia 'o... Pasatzia posible zenun arte. 'Ta klaro, gora ailletzen zenin 'ta tiruo soka 'ta klaro, len san zattutena hankan muturrakin billatzen baldin banun seuru pasatzen nula, biñon azala dena harrotua 'ta zembaitan larrutu igual.

- Gomakin itten duguna guk, biño zuek sokakin.

- Biñon sokakin, klaro! Bai, bai, bai. Kontentu aski bai, biño hala 're aski kontentu, e!

- 'Ta ze ibiltzen ziñazten, neskak elkarrekin 'ta mutillak beste ayekatik?

- Ez, ez, ez.

- Denak batea?

- Ez, mutillikan ez, e! Zortzi urte arte ibiltzen zin...

8. Ikasketen jarraibidea

- **Erref**: OIA-028/011
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:25:47. **Bukatu**: 00:28:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
Zortzi urtera arte mutikoekin batera ikasten zuten; gero haiek eskola partikularretara joaten ziren. Mutil batzuek segitzen zuten ikasten; neskek, gutxiago. Gero egin zituzten eskola publikoak Beko Plazan.

Transkripzioa
- 'Ta geo zortzi urtetan, komuniyo ttikiya itten zutenin atera itten zin handikan.

- 'Ta haik noa joten zin?

- Pes haik joten zin... Ordun eskola partikular bastante zon Oiartzunen. E... Iukitzen zuten Mitxelenatarrak, e... Josu dentista 'ta beno, dentista mekanikua 'ta Josu 'ta hoiken amak eta izebak, Mercedes 'ta Maritxuk, uan Zamateta don itxe hortan bigarren pisun eukiten zuten, haik, e... Geo... Zamo Zamoko maistrak 'e partikular ematen zun eta geo Minatako zerbatt, e... Ez dakit, e... Zer kargo zun e... Minan horrek, e... Arbelai oi... Luxia saten geniyon, eta kimikua 'ro hola zen zerbatte. Eta horrek 'e maten zun partikular. Ordun eskola partikular bastante izaten zin.

- 'Ta neskak 'e joten zin haita 'o mutillak?

- Mutillak generalin. Bai.

- Ofiziyua ikasteko 'ro hola?

- Ez! Ofiziyua ikasteko ez, eskola partikularrak zin, itxian ematen zittuten. Hoi lembiziko preparaziyu hoi! Gaiñekun ofiziyua ikasteko 'ta ez. Ofiziyua 'ta ikasi ber zutenak Oiartzundik jon in ber zuten nombattea. Geo eskola publikua izan zen beko plazan, biño hoi lenotikan zen. Bai. Eta geo ondorin 'e izandu zin, biño momentu hartan ni eskolan nabizela 'ta hoik akortzen naz gehiyo, beste batzuk igual, biño ez naz hoitaz hambeste akortzen.

- 'Ta ikasketakin jende gutxik seittuko zun arrontin!

- Bai.

- Emakumik gutxiyo oaindik.

- Bai. Ikasketakin gutxik seitzen zuten eta jon ber izaten zuten hemendikan derrior Donostira gutxinin. Bai.

- Geo gehiyenak josten 'o hasiko zinazten?

- Bai, bai. Hoi bai.

- 'Ta hoi seidan izaten zen, 'o...

- Bai. Bai, ni bintzat, ni bintzat, bai. Beno, igual da hamasei urte arte ibilli nitzelako 'ro, biño bai, segidan. Bai, neria bintzat, hala izandu zen.

- Gaiñekun burutik pasten al da, seittuko nuke ikasten 'o...

9. Ikasteko baino lanerako premia handiagoa

- **Erref**: OIA-028/012
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:28:20. **Bukatu**: 00:31:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Erizaina eta dendaria izan nahi zuen, baina etxean ez zuen komentatu ere egiten. Garai hartan, etxetik joaten zena apaiz edo moja joaten zen. Gerra ondorena zen eta ikasteak baino premia handiagoa zeukan lanak. Emakume asko ziren lanera joaten zirenak.

Transkripzioa
- 'O ez da pentsatu 're itten?

- Nik momentu hartan nere zea zin, nere... Nei gustatuko zin izatia oso bi gauz diferentik. Enfermera eta dependienta. Nik horaxe nun buruan. Bai. Eta... Jesus...! Amesten nun gaiña askotan! Bai.

- Biño okurritzen al zen satia etxian nik seittuko nuke ikasten 'ta...

- A! Ez, ez, ez. Ez, ez. Keba. Ordun, ordun gehiyena itxetikan joten zena zen apaiz 'o monja. Eta geo tarteka ikastea joten zinak bazin. Eta person pizkorrak e... Askiyak eta atera aterik 'e bai, biñon oso gutxi, oso gutxi. Ordun gaiña ni berrogeiyan jaiyua 'ta gerra ondoria zen eta ordun pues hori, e... Zen beharra eta ahal zunak ahal zuna ittea eta... Bai, biño len san zattutena Oiartzundikan badia person asko pizkorrak aterik eta biño gutxi batzuk, uan bezela ez. Uan bezela gehiyenak ikasketak eta ez, ordun ez. Ez, 'ta gaiña ez zon zeikan, esan nahi nuke... Ez gerra ondoria zelako, ez zon, ez zon uan bezelako... 'Ya uan eta lenotikan bezelako 're erraxtasunik ikasteko ez zon, ez zon.

- Ahal bazen lana in ber?

- Bai. Lana derrior, derrior.

- Eta lanea joten zin emakumik? Orduko zue erarekuk Errentira Pekiñea ta bai ez?

- Bai, asko asko. 'Ta ni, ni biñon zerbatt zarraguk 'e bai. Hor Pekiñea 'ta manta fabrika 'ta hoita Oiartzundikan emakume asko joten zin eta ordukoz 'e oso gutxi, biño bazin amak haurrak hazitzen ai zila fabrikan lana itten zutenak. Gutxi, e! Oso gutxi kontatzeko gaiñe, biño bazin e... Fabrikan zabiztela ezkonduk eta ez zea haur bat eta bi, bost 'o, lau 'o bost 'o... Haur eta haik hazitzen ai zilikan, lana iñ eta handikan jubilatuk. Biño gutxi. E... Zeakin ikastetakin esan dugun bezela, gutxi joten zin bezela aurrea karrera bat 'o ikastea bezela, fabrikan ezkonduta seittutzen zuten emakumik 'e gutxi zin. Biño lanea joten zinak asko! Asko hemendikan bai.

10. Jostailu gutxi, baina irudimen handia

- **Erref**: OIA-028/013
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:31:20. **Bukatu**: 00:35:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
<p>Hainbeste lanen artean, jostatzeko beta ere izaten zuen. Etxean, besteak

siestan zeuden bitartean, bakarrik ibiltzen zen jostatzen, auzoan bere adinekorik ez baitzegoen. Etxeko barrutian bere txokoa egina zuen: jostailu gutxi, baina irudimenez betetako mundu ederra.</p>

Transkripzioa
- Len jostaketakin aittu za. Gehiyena eskolan ibilko ziñan? Itxian, itxian, baserriyan gutxiyo?

- Itxian aprobetxatzen nun bestik siesta joten zinin. Bai. Eta... Ordun bakarrikan e... Asko ibiltzen nitzan san zattuten bezela, ne adiñekoikan ingurun ez nulako, eta bakarrikan ibiltzen nitzaneko banun ne txokua. Bai. E... Barrutiya, zalaiyan onduan arbolak eta zin lekua, barrutiya deitzen geniyon, eta han zen harri txuri zabal zabal bat, eta geo zittun e... Lurran azpiyan gordiak beste bi harri, biñon atetzen zin bastante eta izaten nun harri xabal hura nere itxia eta beste bi lurrin erdi tapatuk zozten haik apalak. 'Ta ordun hora izaten zen ne itxia 'ta ne denda. Eta... Arbolan adarrakin eta geo e... Urritzari aixa kentzen zaio axala, urritz arbolari, hairi axala kendu eta itten nittun orratzak bezela haikin, moxtuta. Eta zertik itten nun hoi? Arkaleko soldaduk ikusten nittulako zea e... Aber, ez nau akordatzen oan... Istrukziyuk itten. 'Ta klaro, haik eamaten zittuten korreak, 'ta gerrikuk eta txapelak ben borla batekin 'ta, 'ta nik itxi hartan denetik nakan. Ordun itten nittun gaztañan 'ta adarrak hartu, 'o gerizayanak igual, sartzen nittun urritz makillai 'ta itten nittun haik bezelako korrea haik 'ta batzutan militarra nitzan, bestetan dendaiya 'ta bestetan itxeko andria! Biñon aztua, e! Zembat dembora eoten nitzan han. Ingurua dena garbi garbiya eukitzen nun.

- Bakar bakarrik?

- Bai, eta hura neria zen. Neria. Ta ez dakit iñoiz iñorrekin han ibilli nitzan, uste 'ut ezetz. Eta geo, pues... Zea 're bai, ordun garai hartako historiya. Itxian sala haundiya zen, eta, bi maiya eta silla pilla bat 'ta, eliza, jartzen nittun maiya oi... Sillak bi illaratan eta neonek jantziko nittun amanak 'o izeban arropak eta hankatakuk, mantilla haundi bat jarko nun 'ta gen ustez elizan geundela, ni bakarra nitzan biñon... Elizan gaudela 'ta apaizak, apaizak guri atzia man 'ta ordun meza maten zuten beák aldarea beira 'ta guk ikusten genun apaizan espalda. Ordun, 'ta kasuelidadia, ze nik aldaria nakan salan...

- Bai, han aldare bat zen bai!

- Guen itxian... Aldaria... Guen... Bai, ni jaiyotako itxian aldaria zon! Ordun jartzen nitzan ni ne silla pilla haikin aldarea beira, eta apaizak ne... Guen ayeka beitu 'ta... Maten zunin be ordena nik itten niyon silla denari buelta eman, belauniko ioten nitzan bittartin, 'ta silla denai buelta man 'ta exeita jarri. Igual hamar 'o hamabi silla! Eta gustora! Bai. Gustora. Geo....

- Ordun jostailluk gutxi!

- Ez. Jostailluk eta... Jostailluk itten genittunak...

11. Jostatzen eta ehizan

- **Erref**: OIA-028/014
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:35:30. **Bukatu**: 00:38:10

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Zuhaitz adarrekin zankak egiten zituzten. Auzokoak biltzen zirenean, habietan ibiltzen ziren. Zozo eta birigarroei habia kendu eta hazteko hartzen zituzten. Garai batean horrelako hegazti asko jaten zen. Zankak egiten zituzten adarrekin. Auzokoak biltzen zirenean txori-habia bila bidaltzen zuten. Habia kendu egiten zen. Garai hartan, zozoa eta birigarroa jan egiten ziren.

Transkripzioa
- Jostailluk itten genittunak, goenek. E... Zea, este... Zankak. E... Arbola adarran kakuakin, kakua zuten arbola adarrak guenak moztu eta guenak, guenak itten genittun zankak. Bai. Eta jartzen genittun alderantziz, eta haiken gaiñin ibiltzen giñan, bai. 'Ta geo nik baita 're, geo ya... Izebak eta ezkondu zinin 'ta haiken zapatik eta ez nunin, itten nittun alpargatari hiltze batekin egur puska bat josi, takoiyak. Eta han ibiltzen nitzan neriakin hankak ukertuta, biño iruitzen... Gustora! Gustora, bai!

- Imajinaziyuk ze itten dun!

- Imajinaziyua bai. Eta geo ba... Hori, igandetan 'ta auzokukin 'ta ibiltzen baldin bagiñan ba... Ordun 'e jostatzen gutxi. 'O txori kabitan, eta nola nitzan ni gaztina eta ttikina adar e... Mehe batin baldin bazon txori kabiya, nei bialtzen ziten. Gurason batek ikusi 'ta errita maten ziyoten arte. Ez han ibiltzeko nei. Zirikatu itten ziten, klaro! Beák ni biñon... Hasieran esan zattutena, zazpi urte 'o zortzi urte gehiyo, nei zirikatzen ziten 'ta... Ni nombatte harrotuko nitzan 'ta hantxe, txori kabiya billatzea, 'ta ikusten baldin bazuten gurason batek 'o saten ziyoten: "biñon, zuek juiziyo pixka bat ber 'ta hortikan eroi 'ta miña hartuko baldin baluteke, baldin baluke, ze ingo zenuteke?" 'Ta, biño bueno. Beste... Ni bintzat, haikin ibiltzen nitzan 'ta ni izugarriya...

- Konten!

- Hombre! Ni biño zazpi 'o zortzi urte... Neska zea... Zarraguk, eta mutillak berdiñ! Haikin, beákin eamaten zitelako ni oso kontentu!

- Kabiyakin ze itten zen? Kendu?

- Kendu! Eta... Hola haundi xamarrak baldin bazin, zozua 'ro billiarrua 'ro holokua, hazi 're bai itxian. T'a ordun zozua 'ta billiarrua 'ta txoriya 'ta jan itten zen, e! Bai, bai bai. Bai. E... Zea, e... Lumatu 'ta lan pilla bat zun, biño ya ohittu, ohittuta geunden eta jan itten zen.

12. Arrantzan eta perretxikotan

- **Erref**: OIA-028/015
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:38:10. **Bukatu**: 00:40:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Perretxiko bila
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:
Berak egindako kanabera batekin ibiltzen zen arrantzan. Perretxikotan ere aritzen zen, nahiz eta garai hartan orain adina perretxikozale egon ez.

Transkripzioa
- Jan itten zen korrintin, bai!

- Ta arrantzan 'o ibiltzen ziñazten, 'o ibiltzen zin bestik 'o....?

- Bai. Nik hura 're bestik xiestan zoztela itten nun. Biñon... Arrantzan, makil puska bat, hariya 'o listiya, eta alambria ukertua. Eta... Exkaluk billatzeko. Exkaluk eta aingirak bakarrak izaten zin, eta klaro, aingira ikusi ezkeo nik ihesi ingo nun! 'Ta exkaluk, 'ta exkaluk ez nun billatzen. Ta gaiña zen dembo, dembo pasatzetikan 'o aitzakiya harrekin etxetik jotetik. Nei ez zin geo jateko gustatzen. Ez txoriyik, eta ez exkaloik eta ez ezer 'e.

- 'Ta ordun perretxikotan 'ta ibiltze al tziñazten?

- Baita 're. Bai, gaiña... Guk, e... Xistiyoko haiztiya onduan genun eta zen haizti haundiya, urtetako haritza zon. Eremoz 'e haundiya zen 'ta arbolak 'e haundiyak. Eta geo beák iatzia moztutzen zuten 'ta ordun iukitzen zuten oso garbiya, eta... Perretxiko leku ona zen. Geo nola zon itxian ondotik, onduan bertan, nik banekiyen non zozten ontuk, non zozten gibel urdiñak, non zozten onto arrautzak eta jendia berriz ez zen ibiltzen, oso gutxi ibiltzen zen perretxikotan. Beldurra gaiña, nik uste 'ut ez jakiñagatikan 'o ordun beldur haundiya ziyon perretxikuk jatiri. 'Ta ni gustora ibiltzen nitzan billatzen, biño geo jateko ez. Beti izandu dut, 'ta uan bertan'e bai, nei perretxikuk goroldiyo gustua 'ro billatzen yot. Bai. Biño billatu bai. Eta... Geo jon ez, ni jon 'ta... Ez nitzan urrutira 'ta itten, biño hora bai. Eta geo, pues, hori 're izaten zen, perretxikua biltzen genun eta len san dutena, ez zen uan bezelako, uan bezelako... Ez jakiñagatik, nik uste dut ez genula aprobetxatzen uan bezela, billu 'ta freskutan jaten genun, ez genun konserbatu 'ta ezer itten eta ordun pues banatzen geniyon kaleko jendiri, amistadia genunai, 'o esniak eamaten geniyonai...

13. Baserriko uzta saltzera

- **Erref**: OIA-028/016
- **Iraupena**: 0:04:32. **Hasi**: 00:40:43. **Bukatu**: 00:45:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Seastarrenekoak Errenteriako plazara joaten ziren saltzera. Arrautzak, oilaskoak, barazkiak... denetik eramaten zuten. Gerezia, berriz, pilaka eramaten zuten: 'burutia' jarri eta saskia buruan, oinez, Gurutzetik kalera. Plazan salmenta egin, etxerako erosketa batzuk egin eta Errenteria eta Oiartzunen arteko mugan zerga ordaintzen zuten.

Transkripzioa

- 'O esniak eamaten geniyonai 'ro banatzen geniyon, bai.

- Kalea e... Baserriyan intako gauz asko eamango zenittuzten?

- Bai.

- Ze itten zenuten saldu? 'O...

- Saldu, trukatu onana dena! Handikan ateratzen zen dirua!

- Ze eamaten zenuten?

- Ba... Guk eamaten genun... E... Arrautzak, oillaskuk, e... Oilluak 'e bai, eta dena biziyik, e! Dena. E... kalea, kalea... Itxe partikular batea eaman ber baldin bagenun, biziyik eamaten genun, eta Errentira 're asko joten giñan plazara eta hara 're biziyikan eamaten zen. Eta geo... Hoitatikan aparte, pues eamaten genun berdura. Berdura, letxua 'ta holokua ez genun guk asko itten. Biñon... Tipula, eta patata, baina, illar motxa... Ilar motxa asko itten genun guk, lana 're gutxina harrek izaten zun. Eta geo fruta... Gereziya. E... Zean... Bi bizitzatan gerezi asko, gezi asko, arbola asko genittun. Eta gerezi klase bat biñon gehiyo 're bai. Eta... hori dena saldu itten genun.

- 'Ta eaman nola itten zenuten?

- Eaman? Ba... Itten genun guk, kantidade haundiyak eamaten genittun eta itten genun hiru 'ro lau personek billu gereziya. Eun guziya arbolan gaiñin. Biltzen genun eta bezperan eamaten genun kaleiño, utzitzen genittun Antonenin, e... Xiextuk. Eta geo xixterak izaten zin zabalak eta haitan nola altura gutxiyon gelditzen zin, gutxiyo hondatzen zen. Eta zea xixtera zabal hartan eamaten genittun eta utzitzen genittun Antonenin.

- Nola eamaten zenittuzten?

- Buruan.

- Buruan.

- Bai. Tobaill batekin burutia iñ, buruan jarri hora buruan xiextuk direto miñ gutxiyo mateko eta harren gaiñin.

- Oiñez?

- Sastiarrenetikan zea¡ño, Learreko malda dena jetxi eta San Juan kalin zon Antoneneko, Antoneneko denda eta han utzitzen genittun. Pues hora ittea 're joten giñan hiru person 'o. Batzuk buruan zea, xiexto zabal hura, bestik xiextua besuan sartua 'ta han utziko genittun. Hurrengo goizin e... Joten nitzan ni, haik handik hartuko nittun, norbattei mesedia eskatuko niyon autobusin sartu arte, eta autobusin sartu 'ta Errentiko plazara. 'Ta hara joten giñanin, beste hambeste. Eta geo Errenteiyan... Segun, batzutan gehiyo saltzen genun, bestetan gutxiyo 'ta sobratzen zena, bai fruta, bai berdura utzitzen genun, zea, Elizegin ta karnizeiyan. Aranbideko... Karnizeya zuten Errentiko plazan, 'ta han utzitzen nittun. Benitak jasotzen zizkin, eta hurrungo goizin joten nitzanin haik saltzea, berriz eamaten nun

gehiyo itxetikan eta harrek urakin bustitzen zin, e... Freskatuta jartzen zin eta... Ba saltzen baldin bazin, e... Kontentu!. 'Ta aurreko egunin eamantakoik ez baldin bazin saltzen berriz 'e buelta itxea. Baina 're bai, baina asko saltzen genun. Eta tipula 'ta patata 're bai. Patata asko itten zen ordun eta hoi izaten zen, prozesua hoi izaten zen. Eta geo Errenteiyan itten baldin bagenittun erosketak, Arraun hombesteko bat ordaindu ber zen, erosketa hura Oiartzuna pasatzeko. Bai. Nik uste 'ut horregatikan zula Arrauko itxe... Fatxada grixa zun horrek Arraguako benta izena. Bai. 'Ta hantxe patzen genun.

14. Esneketan aldaketak

- **Erref**: OIA-028/018
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:47:55. **Bukatu**: 00:51:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Esneketa: baserri gehienetakoek etxetik zuzenean saltzen zuten esnea. Astoarekin, behorrarekin... ahal zen moduan. Batzuek, Oiartzunen; besteek, Errenterian; askok, Donostian... Gerora aldatzen joan zen: etxeko gazteak ezkondu eta baserritik joaten hasi zirenean, esku gutxiago izaki, esnea banatzaile handiagoei ematen hasi ziren.

Transkripzioa
- Eta esniakin, esnia... Kalea? 'o...

- Esnia... Esniakin, e... Gehiyena, baserri gehiyenekuk beák esnia saltzen zuten direto. Eta han guen auzuan, ingurun esan nahi nuke, Ameztoi inguruko baserriyak hola alde batea 'ta zean doztenak, ingurun doztenak, hamabostetikan hamarrek itxetik saltzen zuten esnia. Eta... Joten zin pes hori, bihorra zuna bihorrakin, ne ama bihorrakin joten zen, bihor beltz eder batekin. Txata, geo 're ni harren gaiñin ibiltzen nitzan. Eta... Bueno gaiñin, geo kontatuko zattut ze itten nun. Eta... E... Bihorrakin 'o astuakin, asko zutenak bi astokin igual! Guen Austiñenekua adibidez, harrek, harrek eamaten zun bi asto haunditan. 'Ta joten zen e... Arraura, topoa. Arraun utzitzen zittun astuak eta marmitak hartu topun 'ta Donostira. Eta gehiyo 're bai, han zea inguru hartatikan. Len san zattutena, hamabost itxetikan, hamarrek beák saltzen zuten esnia. Biñon, geo hoi pixkaka pixkaka galtzen joten zen, han itxeko gaztiak ezkondu 'ta itten zinin, 'ta ordun ya haundiyoko batei ematen ziyon esnia. Guk eamaten genun Bordaxarrea. Alkizako famili bat hor bizitzen zen eta guk hairi eamaten geniyon. E... Geo beste bizitzakuk hasi zin, Galdosenai Xixtiyoko kruzea atetzen. Eta... Biñon, e... Gaztia zen bittarte, 'ta jende asko zen bittarte, norbeak saltzen zun itxetikan esnia, direto bea jonta, e... Ne ama Errentira joten zen, harre hua ordun bihorrakin Errentiño joten zen. Donostira joten zinak gehiyenak, Donostira joten zinak gehiyenak Arraun gelditzen zin, topua hartu 'ta Donostira joteko. Eta geo ya ondorin seittu zutenak, e... Ya joten zin bihorra 'ta karrukin, 'o astua 'ta karrukin 'o, 'ta geo ya hasi zin lembiziko kamioneta koxkorrak eta. Eta ordun ya haikin len astuakin joten zena kamio hartan igual jongo zin bi emakume 'ro kamioi jabi harrekin ben esnia saltzea. 'Ta geo ya azkenea, esan nahi nuke, urtiak aurrea jon ahala, baserri

gehiyenekuk ya haundiyaguri ematen ziyon. Han inguru hartan askok ematen ziyoten Galdosenai. Galdosen Juanitoi, tabernakuri. Eta biñon, ne zean ne izaueran eta lembiziko urte hoitan 'ta, itxian be itxe bakotxetikan esneketa. Huraxe zen dirua, e... Baserriko diro sarrera hura zen. Eta geo, pes hori, len kontatu zattuten bezela, fruta baldin bazon frutakin, berdurakin, e... Geo... Beste diro sarrera zen animaliyana. Animaliyan umik.

15. Diru mugimendu gutxi: trukaketa eta errazionamendua

- **Erref**: OIA-028/019
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:51:40. **Bukatu**: 00:54:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Lehen erosi adina trukatzen zen. Dendara arrautzak eraman eta etxerako behar zena hartzen zen. Gerra ondorengo errazionamendua ere gogoan du: hiru kategoriatan banatuak zeuden kartillak.

Transkripzioa
- Ta zu gotzen za, diruz aparte trukaketaz gotzen za?
- Bai, bai, bai. Arrautza asko. Arrautza dendata asko. Arrautza eaman dendata eta guk itxian ber genuna. Bai. Baita're geo gerra ondorengua izanagatikan'e akordatzen naz razionamentua. Hoi're akortzen naz. Hiru kategoria zin: primera, segunda ta tercera. Ta primerakuk zuten ogiya kantidade gutxiyo eta oliyua ta, e... Letxekondesada ta txokolatia 'ta hoi kantidade haundiyuo. Eta terzerakuk zuten ogiya kantidade gehiyo, letxekondensadikan ez, eta gaiñeko jenerua're kantidade ttikiyuo. E... Kartilla batzuk zin eta haikin joten giñan uan Arrandeiya Maritxu den hortan Baraiberrenak ardo almazena zuten ta han banatzen zuten razionamentua. Bai. Eta hara joten giñan, eta nik eamaten nittun itxekuk eta Austiñenekuk. Eta famili haundiya zen han, ta gaiña primerakuk zin haik, primera kategoriakuk eta ordun marmita batin oliyua. Ta ni batetikan gaztia ta, bestetikan ttikiya, han joten nitzan oliyua birian galduez hairi eamatea. Ogiya eunero eamaten genun, ta ogiya billa beak tortzen zin guen itxeaiño, biñon hillabetin behingo razionamentu hura neonek entreatzen nun. Eta beno, bireko nekik aztutzen zin hara jon ta txokolatia ematen zitenin. Dena aztua gelditzen zen. Bai.
- Txokolatia're razionamendun barrenin al zon?
- Bai, bai. Haikentzako bai, primeran barrenin baitzon. Biñon terzerakuntzako ez zen... Txokolatia nik uste dut kantidade ttikiyun maten zigutela, biñon letxekondensada behintzat, ez. Ez ziguten ematen guri.
- Ta hoik zertik 'te zen, kategori difentik?
- Hoi... Esplikatzen ez dakit. Biñon akordatzen naz hiru kategori hoik zila. Eta... Ogiyana're akordatzen naz ongi, eta letxekondensada ez genula izaten're bai. Binon gaiñekun ez dakit hoi zergatik izaten zen.
- Eta ogiya ez zen asko... Bueno denetik gutxi izaten zen, ogiya're gutxi!
- Ogiya gutxi bai. Ogiya gutxi ta txarra.

16. Seastarrene

- **Erref**: OIA-029/002
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:05:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Seastarrene baserrikoa da Maria Jesus. Berez Ameztoi du izena, baina jendeak Seastarrene edo Kuatrone bezala gehiago ezagutzen du. Zer hazienda eta lursail zituen kontatu digu. Gurutzeko zein baserritan zeuden dolareak.

17. Egurra

- **Erref**: OIA-029/003
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:07:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Egur asko behar izaten zen lehen. Seastarreneko lurretan bazegoen nahiko egur, baina ez zeukatenek herri-lurretakoarekin konpondu behar izaten zuten. Udalak zozketan ematen zuen eta auzolanean ateratzen zen egurra.

18. Argia eskas eta ura urruti

- **Erref**: OIA-029/004
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:10:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Argindarra orain baino eskasagoa zen. Etxeetan instalazio sinplea eta arriskutsua izaten zen. Askotan izaten ziren aberiak, eta beti prest egoten ziren farolak eta kandelak. Ur-korronterik ez zegoen etxeetan. Egunean behin baino gehiagotan joan behar izaten zen inguruko iturrietara ur bila.

19. Adolfo Leibar ikerlanean

- **Erref**: OIA-029/005
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:11:50

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:
Behin, ur bila joan zen batean, gizon bat topatu zuen iturrian. Uraren soinuaz

eta txorien kantuaz galdetu zion. Ondoren, katxarro batetik berak esandako guztia entzun zuen eta sorginkeria iruditu zitzaion. Adolfo Leibar zen gizon hura.

20. Pinto erreka

- **Erref**: OIA-029/006
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:11:50. **Bukatu**: 00:15:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:
Arropak garbitzera Peluko errekara, Pintoko errekara, joaten ziren. Arropak garbitzeko hankak errekan sartu behar izaten zituzten, baita neguan ere. Behiak ere errekara eramaten zituzten edatera.

21. Arropak, txuri

- **Erref**: OIA-029/007
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:15:20. **Bukatu**: 00:16:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Arropa etxean garbitzen zuten eta errekan aklaratu. Bera xaboiarekin aritzen zen, baina gogoan du surtako hautsarekin ere aritzen zirela. Gauean belarretan zabaltzen zuten arropa eta txuri-txuria gelditzen zen.

22. Abioien erasoa

- **Erref**: OIA-029/008
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:16:50. **Bukatu**: 00:19:25

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerra garaian, beste baserri askotan bezalaxe, Seastarrenen ere kanpoko jendea egon zen. Emakume batek, aginduei muzin eginez, maindireak zabaldu zituen baserri ondoan. Abiazioak ikusi, eta eraso egin zuen; justuan libratu zen baserria.

23. Errotak

- **Erref**: OIA-029/009
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:19:25. **Bukatu**: 00:21:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gurutzen ez zegoen errotarik. Seasterrenekoak Ugarte errotara joaten ziren. Bera gerra ondoren jaioa da, baina badaki hemen errotak itxi zituzten garaian etxekoak behorrarekin joaten zirela San Anton eta Lesakako errotetara.

24. Zahia eta erremolatxa

- **Erref**: OIA-029/010
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:24:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Errotan, beraientzako irina eta abereentzako zahia hartzen zuten. Zahia beste jakiekin nahastuta, bazka goxoa lortzen zen haziendarentzat; erremolatxarekin, esaterako. Erremolatxa urtsua izaki, hutsik ematen bazitzaion kalte egiten zion behiari.

25. Ugarte errota

- **Erref**: OIA-029/011
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:24:20. **Bukatu**: 00:26:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Ugarte errota ama-alabek eramaten zuten. Maria Jesusek artoa eramaten zuen errotara eta irinarekin itzultzen zen etxera. Ez zen diruarekin ordaintzen, irinarekin baizik.

26. Belar siloak

- **Erref**: OIA-029/012
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:26:35. **Bukatu**: 00:28:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garai batean ere belarrentzako siloak bazeuden. Ez ziren gaur egunekoak bezalakoak, baina prozedura berdina zen.

27. Karea

- **Erref**: OIA-029/013
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:28:20. **Bukatu**: 00:31:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Berak ez ditu karobiak funtzionatzen ezagutu, baina bere garaian oraindik karea asko erabiltzen zen. Kareharri asko zen inguruan. Lurrari botatzeaz gain, behiari errapea sendatzeko ere erabiltzen zen. Ongarri guztia naturala zen garai hartan: karea, gorotza, pixa...

28. Denentzako lana

- **Erref**: OIA-029/014
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:31:30. **Bukatu**: 00:35:25

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Lan handia izaten zen baserrian, baina familia handia zenean lanak banatu egiten ziren. Egunero egiten ziren lanak banatuak zeuden, eta urtean behineko lan handienak denen artean egiten ziren eta baita auzolanean ere: belarra, iratzea, egurra... Haurrek ere lan asko egiten zuten.

29. Auzokoekin harremana

- **Erref**: OIA-029/015
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:35:25. **Bukatu**: 00:37:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gaur egun mobilekin mezuak bidaltzea oso ohikoa bihurtu da. Garai hartan ez zegoen mobilik, baina ezta beharrik ere. Auzoekin harreman handiagoa zegoen lehen. Ezin zen haserretu nola hala.

30. Sagardo poteoa

- **Erref**: OIA-029/016
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:37:40. **Bukatu**: 00:40:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Garizuma garaian baserri askotan jartzen zen sagardoa salgai. Jendea

txikiteoan bezala ibiltzen zen baserriz baserri. Bidezidorrak aski garbi egoten ziren garai hartan.

31. Maizter

- **Erref**: OIA-029/017
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:40:30. **Bukatu**: 00:43:25

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Seastarrenekoak maizterrak ziren. Urteko errenta ordaintzeko txekorra saldu behar izaten zuten, eta gainera, etxeko kapoi ederrenak oparitu etxeko jabeari. Urte osoko lanetik ateratako etekina, etxeko jabearentzat. Goserik ez zuten pasatu, baina egunero gauza bera jateaz aspertu, bai. Desiratzen egoten ziren egun berezi bat iristeko, zerbait ezberdina jateko.

32. Otorduak

- **Erref**: OIA-029/019
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:44:05. **Bukatu**: 00:46:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Otortuak nolakoak ziren. Merienda oso inportantea izaten zen. Normalean zelaian egiten zuten, lanean ari ziren tokian. Arrainketariak baserriz baserri aritzen ziren arraina saltzen.

33. Edariak

- **Erref**: OIA-029/020
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:46:40. **Bukatu**: 00:49:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Goizean oso goiz jaikitzen ziren. Gosari txikia egin, eta lurra lantzera. Kalean ohikoa zen gosari txikitarako anis pixka bat hartzea. Gainerakoan, edateko, ardoa gutxi eta pitarra gehiena (sagardoa urarekin nahasia).

34. Kofradia eta trukea

- **Erref**: OIA-029/021
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:49:20. **Bukatu**: 00:53:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Kofradia: baserri mordoska elkartzen zen hildako animalien galerari aurre egiteko. Baserritik gauza asko saldu eta trukatzen zen.

35. Gerraren ondorioak

- **Erref**: OIA-029/022
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:53:00. **Bukatu**: 00:56:00

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Gerra ezagutu ez bazuen ere, ondorioak ezgutu zituen. Dirua zuenak ere ezin zuen erosi, dena falta baitzen. Dena gelditu zen hautsia. Jende mutilatu asko ikusten zen kalean, eskean.

36. San Juan iturria

- **Erref**: OIA-029/023
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:56:00. **Bukatu**: 00:59:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:
Gerraren ondoren gaitz asko zeuden. Berak sarna eduki zuen eta San Juan iturrira eraman zuten sendatzeko. San Juan iturrira oiartzuar asko joaten zen. Oiartzunek Nafarroarekin harreman handia eduki izan du.

37. Herri lana

- **Erref**: OIA-030/001
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:10

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Klaketa. Gaur egun administrazioak egiten duen obra asko lehen auzolanean egiten zen, batez ere baserrietako bideak. Udalak materiala edo erreminta ematen zuen eta bizilagunek egiten zuten lana. Pajina deitzen zitzaion.

38. Zabor gutxiago

- **Erref**: OIA-030/002
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:02:10. **Bukatu**: 00:05:50

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:
Lehen orain baino zabor gutxiago sortzen zen; batetik, produktuen banaketa sistemarengatik, eta, bestetik, ia dena berriz erabiltzen zelako.

39. Laranja jatea, luxua

- **Erref**: OIA-030/003
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:05:50. **Bukatu**: 00:07:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraren ondoren gauza gutxiago zeuden aukeran eta gaur egun normaltzat ditugunak, garai hartan, luxua ziren; laranja, esaterako.

40. Udaberrian erein

- **Erref**: OIA-030/004
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:07:40. **Bukatu**: 00:09:15

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Baserrian urte guztian izaten da lana. Urtaro bakoitzak bere lan motak ditu. Udaberria hazia ereiteko garaia da. Abereentzako pentsoa etxean bertan egiten zen: tepla, alfalfa, allobria, oloa, artoa, ilarra, erremolatxa...

41. Artajorran

- **Erref**: OIA-030/005
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:12:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:
Artoa behin baino gehiagotan jorratzen zen. Azkeneko jorraketan pagotxa edo arbia sartzen zitzaion tartean. Jorratzeko bostortzekoa edo karrama erabiltzen zen. Artoari dena aprobetxatzen zaio.

42. Pagotxa eta baserriko lana

- **Erref**: OIA-030/006
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:15:45

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Gaur egun gure baserrietan desagertu bada ere, garai batean pagotxa ('paoxa') asko ereiten zen. Pagotxa animalien bazkarako belar mota bat da. Zenbat lan egiten zen baina zein jakintsuak ziren. Gazte asko joaten ziren beste baserrietara jornalean lanera. Lehen ohikoa zen.

43. Iratzeetan

- **Erref**: OIA-030/007
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:19:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Udazkenean baserriko lan neketsuenetakoa egin behar izaten da, iratzearena. Iratzeleku gehienak mendian daude. Lehendabizi moztu eta gero garraiatu, gurdia eta behiekin. Beraiek iratzeetan ari ziren bitartean, etxean zegoenak sagarra biltzen zuen. Sagar motak: txalaka, libra, olio sagarrak...

44. Emakume itzainak

- **Erref**: OIA-030/008
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:19:35. **Bukatu**: 00:23:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Baserri batzuk gurdiaren jabe ziren. Baina ez zirenek itzainen zain egon behar izaten zuten, iratze jorra ekartzeko. Seastarrenen gurdia behiek tiratzen zuten eta itzainen artean emakumeak ere bazeuden. Emakume baserritarrek gizonezkoek baino lan gehiago egiten zuten: kanpokoa eta etxekoa.

45. Ganbaratik heiara

- **Erref**: OIA-030/009
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:23:10. **Bukatu**: 00:26:00

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Uzta gehiena ganbaran jasotzen zen. Zati bat, jateko, bai pertsonek eta baita animaliek ere. Eta beste zatia, hazitarako. Belarra ere ganbaran sartzen zen: meta osoak igotzen ziren ganbarara, gero heiara jaisteko.

46. Heia

- **Erref**: OIA-030/011
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:26:42. **Bukatu**: 00:27:54

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Seastarrenen heia nola egina zegoen. Garai hartarako oso modernoa eta praktikoa zen.

47. Inaurkina

- **Erref**: OIA-030/013
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:30:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Udazkenean, iratze lanaz gain, gehiago ere egin behar izaten zen: barrutietako zakarra biltzen zuten behientzat, zer edo zer jaten baitzuten bertatik. Gainerako inaurkina azpitarako gelditzen zen. Zakar hori belar, iratze, lar, sasi eta "añarrak" osatzen zuen. Beste batzuek otea ere erabiltzen zuten behiak bazkatzeko.

48. Udazkeneko lanak

- **Erref**: OIA-030/015
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:30:50. **Bukatu**: 00:33:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Udazkenean, beste hainbat lan egiteaz gain, gaztain eta ezkur asko biltzen zuten Seastarrenen. Arto-zuritzen ere aritzen ziren.

49. Arto-zuriketa eta gidergaiak

- **Erref**: OIA-030/016
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:33:10. **Bukatu**: 00:36:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
<p>Arto-zuriketa denen artean egiten zuten, ganbaran. Artoa aletzen, berriz,

ilunabarretan aritzen ziren, arrosarioa errezatuz. Neguan lanabesak konpondu eta gidergaiak gordetzen aritzen ziren: sahatsa eta urritza.

50. Moztu, kimatu, txertatu

- **Erref**: OIA-030/018
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:38:30. **Bukatu**: 00:40:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Egurra mozteko ilargiari begira. Kimaketa eta txertaketa fruta arboletan. Txertaketa zertarako den.

51. Aldaketak baserrian

- **Erref**: OIA-030/020
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:43:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Baserriko gazteak fabriketan lanean hasi ziren, eta, esku gutxiago zegoenez, lana aurrezten hasi ziren. Pentsoa etxean egin beharrean, kanpotik ekartzen hasi ziren, eta geroztik ereinketa asko joan dira desagertzen: tepla, alfalfa, pagotxa, erremolatxa...

52. Garia

- **Erref**: OIA-030/021
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:43:20. **Bukatu**: 00:46:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garai batean garia ereiten zen Euskal Herrian. Maria Jesus ez da gogoratzen, baina Elizaren aginduz ereiten zuten zatitxo bat. Gero ostiak egiteko erabiltzen zen gari-irina. Zainketa handia eskatzen du gariak.

53. Lupulua

- **Erref**: OIA-030/022
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:46:10. **Bukatu**: 00:49:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:
Urte batzuetan lupuluarekin esperimentatu zuten baserritarrek. Lupulu landarea zerbeza egiteko erabiltzen zen. Arrisku handiko negozioa zen. Izan ere, lan handiena egin eta gero, lupulua erraz ondatzen zen eta galera zekarren.

54. Behi motak

- **Erref**: OIA-030/023
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:49:00. **Bukatu**: 00:50:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Orain baserri askotan haragitarako hazienda izaten da, baina lehen ia dena esnetarakoa izaten zen. Gaur egun, esnetarako behi gehienak holandarrak dira, baina lehen beste arraza batzuk zeuden; betroiak, esaterako. Behia lanerako erabiltzen bazen, esne gutxiago ematen zuen.

55. Nafarmina eta lanparoia

- **Erref**: OIA-030/024
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:50:30. **Bukatu**: 00:53:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Haziendak gaixotasun ugari hartzeko arriskua zuen: nafarmina, lanparoia... Kutsakorra zenez, azoka asko itxi ziren gaixotasun horiengatik.

56. Hazienda zaintzen

- **Erref**: OIA-030/025
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:53:10. **Bukatu**: 00:55:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Baserriko diru-iturri garrantzitsuena izaki, animaliak ahal zen hoberena zaintzen ziren. Lanparoia eta antzeko gaixotasun larrien kontra ezin zen zer askorik egin, baina gainerakoekin saiatzen ziren. Behiak ez ziren heiatik ateratzen orain bezala, eta, leku itxian egonda, errazago gaixotzen ziren.

57. Umea egiteko

- **Erref**: OIA-030/026
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:55:30. **Bukatu**: 00:58:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Beti hazienda kopuru bera eduki ahal izateko, txekor batzuk saldu egiten ziren eta behi onenaren miatxua aurrerako uzten zen. Baina bai baterako bai besterako, behiak umetu egin behar, eta, horretarako lehendabiziko lana, behia susara jarri orduko zezenarengana eramatea. Behia umetzeko garaian, ez zitzaion albaitariari deitzen; etxean beti zegoen norbait horretan trebea zena.

58. San Juan kaleko hiltegia

- **Erref**: OIA-030/027
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:58:40. **Bukatu**: 01:01:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Animalien hiltegia San Juan kalean zegoen, orain Iparragirre etorbidea dagoen tokian. Han tripak garbitzen aritzen zen emakumeari Maria Tripera deitzen zioten. Etxean hil zitekeen animalia, baina txerriaren kasuan, puska bat eraman behar zitzaion albaitariari, aztertzeko.

59. Gazi-kutxa

- **Erref**: OIA-033/002
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:02:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Garai batean hozkailurik ez zegoenez, janaria beste era batera kontserbatzen zen; gazi-kutxarekin, adibidez. Gazi-kutxa txerrikia gazitzeko eta gainerako haragiarekin sasiña egiteko ere erabiltzen zen.

60. Ferratokiak

- **Erref**: OIA-033/003
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:02:40. **Bukatu**: 00:06:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Baserriko lana egiteko makinariarik ez zegoenez, animaliak erabiltzen ziren. Horretarako, ferratu egiten ziren. Ferrategiak non-nahi zeuden Oiartzunen. Altzibarren, esaterako, bi bazeuden.

61. Ferrak

- **Erref**: OIA-033/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:07:20

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Ferrak aberearen oinak babesteko jartzen ziren, lan egiten zutenei azazkalak hondatzen baitzitzaizkien.

62. Abere langileak

- **Erref**: OIA-033/005
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:10:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Garraiatzeko eta tiratzeko, abereak erabiltzen ziren. Gehiena, astoa, baina baita idiak, mandoak eta zaldiak ere. Seastarrenen, Txata behorra zeukaten.

63. Gurdia

- **Erref**: OIA-033/006
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:13:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:
Gurdiak zurezkoak ziren eta lan mota bakoitzera egokitzeko prestatuak zeuden.

64. Kapoiak

- **Erref**: OIA-033/007
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 00:13:10. **Bukatu**: 00:16:30

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Baserri gehienetan zegoen oilategia. Oiloek, oilarrak eta oilaskoek osatzen zuten oilategia. Oilaskoak zikiratu egiten ziren, kapoi bihurtzeko. Zikiratzaile ezagunen artean Aranburuko Anttoni zegoen. Urte osoa kapoi ederrak zaintzen egoten ziren, gero etxearen jabeari oparitzeko.

65. Nagusia eta maizterra

- **Erref**: OIA-033/008
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:16:30. **Bukatu**: 00:18:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:
Baserrien jabeak Oiartzungo Joxixionera etortzen ziren errenta kobratzera. Baserritarrek errenta dirutan eta kapoi parea oparitzen zieten eta jabeek bakailaoa ekartzen zieten maizterrei.

66. Antonene denda

- **Erref**: OIA-033/009
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:18:10. **Bukatu**: 00:20:50

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk

Laburpena:
San Juan kalean Antonene denda zegoen. Denda handia zen eta denetarik zeukaten. Antonenen, beste denda askotan bezalaxe, taberna ere bazegoen. Igandeetan baraurik joan behar zen jauna hartzera, eta elizatik ateratakoan ongi etortzen ziren hango gosari txikiak.

67. Komertzio justua

- **Erref**: OIA-033/010
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:20:50. **Bukatu**: 00:24:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Garai bateko komertzioa zuzenagoa zen. Gauza asko trukatu egiten zen, dirua maneiatu gabe. Baserritarrek dendara eramaten zuten beren jeneroa, eta dendatik baserrian ez zituzten lehengaiak hartzen zituzten. Era berean, kaleko norbaitek zer edo zer berezia behar zuenean, dendan enkargatzen zuen eta baserritarrek jaitsi egiten zuten. Produktuak 'a granel' banatzen ziren. Zestoetan eta pardeletan eramaten zen; ez zen oraingo plastiko pila batzen.

68. Razionamendua

- **Erref**: OIA-033/013
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:32:40. **Bukatu**: 00:34:20

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Gerraren ondoren, razionamendua egon zen. Baraibarrenera joaten ziren bila. Haiek gerra aurretik ardo-biltegia zuten eta bertan jarrri zuten razionamendurako biltegia. Oiartzungo okindegi eta ardandegiak.

69. Baserritarrak eta kaletarrak

- **Erref**: OIA-033/014
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:34:20. **Bukatu**: 00:38:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Baserritarrek, dendetara eta azoketara ez ezik, etxeetara ere eramaten zuten jeneroa. Kaletarrak ere igotzen ziren baserrira beren lana egitera. Herrian denek ezagutzen zuten elkar eta denek zuten bata bestearen beharra; hori dela eta, harreman handia zuten elkarrekin.

70. Kategoriak

- **Erref**: OIA-033/015
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:38:00. **Bukatu**: 00:39:40

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Garai batean, klase diferentzia gehiago nabaritzen zen. Arropan, esaterako. Arropa gutxiago izaten zenez, hobeto pentsatuta egiten zen.

71. Uniformedunak

- **Erref**: OIA-033/016
- **Iraupena**: 0:03:50. **Hasi**: 00:39:40. **Bukatu**: 00:43:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Lanbideak » Udal langileak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:
Uniformedunak bazeuden: xixeroa, mikeletea, guardia zibilak eta soldaduak. Apaizak sotana luzearekin ibiltzen ziren. Don Jose Luis apaiza.

72. Berorika, zuka eta hika

- **Erref**: OIA-033/018
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:44:55. **Bukatu**: 00:48:00

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:
Apaizari eta medikuari berorika egin behar zitzaien. Gurasoei, zuka. Gurasoek seme-alabei, hika eta senideek elkarri ere bai. Eta lagunek elkarri, hika. Babilonia eta Arkaleko soldaduak ere aipatzen ditu.

73. Euskara eta erdara

- **Erref**: OIA-033/019
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:48:00. **Bukatu**: 00:51:40

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Etxean euskaraz hitz egiten zuten, baina kalean erdaraz egitera behartuak zeuden. Kargudun gehienak erdaldunak ziren. Apaizak kalean erdaraz, baina bakarka zeudenean euskaraz hitz egiten zien. Emakume nerabe gehienek gaztelaniaz hitz egiteko ohitura hartzen zuten, gehiago zirelakoan.

74. Neskak, erdaraz

- **Erref**: OIA-033/020
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:51:40. **Bukatu**: 00:53:50

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Kalean erdaraz egiten zen, baina etxean eta auzokoekin, euskaraz. Neskek beren artean erdaraz hitz egiteko joera zuten, baina gero mutilarekin hastean berriz euskaraz hasten ziren. Batzuek mutila kanpotarra egiten zuten eta harekin ikasten zuten erdara, baina nesken etxekoek ez zekiten gaztelaniaz.

75. Euskaldun elebakarrak

- **Erref**: OIA-033/021
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:53:50. **Bukatu**: 00:56:20

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Baserrian asko kontu zitzaion euskarari. Administrazioko gorabeherak egiteko erdaraz zekien norbaiten laguntza behar izaten zuten askok. Maria Jesusen aitona-amonen garaiko gehienek ez zekiten gaztelaniaz. Eta ezta leitzen eta idazten ere.

76. Elizkizunak

- **Erref**: OIA-033/022
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:56:20. **Bukatu**: 00:58:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Mezak latinez ematen ziren, eta, apaiza, fededunei bizkarra ematen. Gizonak eta emakumeak bananduta esertzen ziren. Gutxienez urtean behin aitortu eta jauna hartzeko obligazioa izaten zen. Txartelekin eramaten zuen kontrola elizak.

77. Kongregazioko kideen betebeharrak

- **Erref**: OIA-034/002
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:20. **Bukatu**: 00:04:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:
Kongregazioak. Bost ordena: gudaritxoak... Nola janzten ziren. Don Pablok Erromatik ekarritako ohitura omen. Kongregazioak: Hijas de María, luistarrak, Jesusen Bihotzekoak eta frantziskotarrak. Ordena bakoitzak bere betebeharrak zituen; Hijas de María kongregaziokoek, esaterako, ezin zuten mutilekin dantzatu.

78. Soldaduak baserrietan

- **Erref**: OIA-034/004
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:04:15. **Bukatu**: 00:08:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerraren ondoren, soldadu asko zeuden Oiartzunen. Arkale eta Babilonian kuartelak zeuden. Soldaduak ere goseak egoten ziren, eta baserrietako lanak egiten zituzten janariaren truke. Gauza berri asko erakutsi zieten bertakoei jaten.

79. Soldaduen peripeziak

- **Erref**: OIA-034/005
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:08:10. **Bukatu**: 00:11:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Militar mandoek ez zuten nahi izaten soldaduak baserrietan ibiltzea. Askotan deitzen zituzten kuartelera eta zigorraren beldurrez joaten ziren. Masastuarekin batera erretzen zuten artaburua, eta halaxe jaten zuten.

80. Militarrak

- **Erref**: OIA-034/006
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:13:30

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Noizbehinka, militarrek inspekzioa pasatzen zuten baserrietan. Kale inguruan militar mando asko bizi ziren, beren familiekin.

81. Gutxi behar giro ederra sortzeko

- **Erref**: OIA-034/007
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:17:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Soldaduen eta baserritarren artean harreman ona zegoen, asko laguntzen baitzuten. Giro ederra egoten zen baserrietan: soldaduak kantari, fabriketatik itzultzen zirenen kaleko kontuak... Garai hartan ez zegoen telebista eta irratirik, hortaz, berriketaldi luzeak egiten ziren lanak bukatu ondoren. Lehendabiziko irratia Gurutzezarren ikusi zuen Maria Jesusek.

82. Pobre, baina apain

- **Erref**: OIA-034/008
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:17:00. **Bukatu**: 00:19:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Maria Jesus beti konturatu izan da bere amaren garaian-eta ez zegoela baliabide askorik baina hala ere zer apain joaten ziren. Arropa gutxi izaten zen, baina hura ongi pentsatuta egindakoa. Soin berari lepo eta aplike ezberdinak jarri ahal zitzaizkion.

83. Galtzerdiak eta eliza

- **Erref**: OIA-034/009
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:19:00. **Bukatu**: 00:21:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Hasieran, galtzerdiak punto ingles zeritzenak ziren. Geroago hasi ziren zetazkoak, eta, ondoren, kristalezkoak. Elizara ezin zen joan galtzerdi gabe. Behin, jauna hartzea ukatu zion apaizak neska bati: mediak zeramatzan eta apaizak uste zuen ez zeramala ezer.

84. Bizitza guztirako arropa, eta baita gehiagorako ere

- **Erref**: OIA-034/010
- **Iraupena**: 0:03:30. **Hasi**: 00:21:20. **Bukatu**: 00:24:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Gaur egun ez da ia josten; dena egina saltzen da. Baina garai batean, dena josten zen, baita barruko arropa ere. Igandeetarako arropa propioa egoten zen, eta hautsi arte erabiltzen zen. Denbora batean, ezkontzeko trajearekin lurperatzen zituzten hildakoak.

85. Aldaketak arropan

- **Erref**: OIA-034/011
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:24:50. **Bukatu**: 00:28:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Arropak asko iraun behar zuen, beraz, bai kortea bai kalitatea ongi begiratzen ziren. Kolore arruntenak urdin iluna eta txuria ziren. Gero hasi ziren koadrodunak eta kolore biziagoak. Emakumeen lehendabiziko galtzak orain dela urte gutxira arte ez ziren hasi, eta orduan ere mendira joateko edo.

86. Azal txuria, modan

- **Erref**: OIA-034/012
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:29:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Gaur egun beltzarana egotea dago modan, baina, gure aitona-amonen garaian, azal txuria izateak fintasuna erakusten zuen. Baserriko neskatxak eginahaletan aritzen ziren txuri mantendu eta kaletarrak emateko, baita horretarako egosiko baziren ere.

87. Orrazkerak

- **Erref**: OIA-034/013
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:29:00. **Bukatu**: 00:31:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Orrazkera ere aldatzen ari da. Mototsa asko eramaten zen. Ileari forma emateko kizkurgailuak zeuden; erne ibili behar zen horiekin, zimak erreko ez baziren.

88. Haurren orrazkera eta aldaketak

- **Erref**: OIA-034/014
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:31:40. **Bukatu**: 00:33:20

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:
Haurren orrazkerari dagokionez, neskek trentzak edo lazoak eramaten zituzten. Mutikoek, berriz, burua rapatua eta kopeta gainean mordoxka bat luzexeago. Gure amonek mototsa eramaten zuten, eta gure amak kardatzen hasi ziren.

89. Oinetakoak

- **Erref**: OIA-034/015
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:33:20. **Bukatu**: 00:35:35

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Garai batean oso diskreto janzten ziren eta gauza batzuk ez zeuden ongi ikusiak; takoi altuko sandaliak, esaterako. Maria Jesusen izeba batek gordeka janzten zituen, baserritik urrunduta, baina ez zituen inoiz erabili izan. Oinetakoei dagokienez, gehiena alpargata eta abarkak erabiltzen ziren. Eta oinutsik ere asko ibiltzen ziren.

90. Aterkia

- **Erref**: OIA-034/016
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:35:35. **Bukatu**: 00:37:32

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Baserrian euria egin edo ez, berdin egin behar izaten zen lan, baina hala ere ez zuten aterki gisakorik izaten.

91. Blusa eta trajea

- **Erref**: OIA-034/018
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:37:35. **Bukatu**: 00:40:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Garai batean blusa erabiltzen zen; gero hasi zen trajea. Traje bakarra bizi guztirako, eta askotan, familian konpartituta, gainera. Arropa gutxi izaten zen, eta askotan, lehortu arte zain egon behar janzteko.

92. Josten ikastea, ohikoena

- **Erref**: OIA-034/019
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:40:00. **Bukatu**: 00:41:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Emakume gehienek zekiten josten. Eskolara joango ez baziren ere, denak josten ikastera.

93. Gerra ondorengo gabezia

- **Erref**: OIA-034/020
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:44:40

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:
Gerraren ondoren, pobrezia handia gelditu zen. Lan asko egin behar zen familia hazteko. Apopilo asko hartzen zen eta familia askok etxebizitza konpartitzen zuten. Esneketara joaten zirenek txerri-jana jasotzen zuten hirietan, baina etorkinen auzoetan ez zen asko biltzen lanik.

94. Jostundegiak

- **Erref**: OIA-034/021
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:44:40. **Bukatu**: 00:47:00

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Oiartzunen jostundegi asko zeuden. Maria Jesusek herrian ikasi zuen josten eta Errenteriara joan zen kortea ikastera. Corte Paris ikasten zuten.

95. Josten eta zirikan

- **Erref**: OIA-034/022
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:47:00. **Bukatu**: 00:50:40

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Emakume asko elkartzen zen jostundegietan eta giro ederra egoten zen. Lagun giroa eta elkar zirikatzeko aukera. Maria Jesus, zirikatzeko garaian, ez zen atzean gelditzen.

96. Oihal motak

- **Erref**: OIA-034/024
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:52:10. **Bukatu**: 00:54:50

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Oihal ohikoenak: garai batean, harizkoa. Gerora, vichy-a, zeta, perkala, batista... Gerora: popelina, pana, tertziopeloa, mezkla... Artilearekin ere lan asko egiten zen: jertse eta galtzerdiak. Gantxilloa egiten eta bordatzen eskolan erakusten zuten.

97. Arreoa

- **Erref**: OIA-034/025
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:54:50. **Bukatu**: 00:58:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Gure aurreko belaunaldira arte, arreoaren ohitura egon da. Hau da, ezkonduta bizitzen jarriko ziren etxe berrirako arropa egiten zuen emakumeak: horko maindireak, horko toallak, horko manteleria... eta baita barruko arropa txuria ere. Josteaz gain bordatu ere egiten zenez, ordu asko pasatzen zuten lan horretan. Ez zen arraroa, beraz, ezkondu aurretik auzokoei eta lagunei erakustea. Ezkontzaren berri ematerakoan txokolatea oparitzen zuen bikoteak.

98. Ezkongaien nahia: arreo on bat eta etxearen jabe egitea

- **Erref**: OIA-034/026
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:58:30. **Bukatu**: 00:59:30

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Ordu pila bat pasatzen zen arreoa egiten: beste lanak bukatu ondoren aritzen ziren, askotan loari orduak kenduta. Ezkonberriak arreoan egiten zenarekin joaten ziren etxe berrira. Orduan, gehienak errentan bizi ziren, baina gizongaia beti saiatzen zen etxe baten jabe egiten.

99. "El que tiene Vespa, tiene neska"

- **Erref**: OIA-038/002
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:00:50. **Bukatu**: 00:04:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
1958an, Altzibarko bileran bi Lanbreta agertu ziren, eta, handik aste batzuetara, bi Vespa. Neska guztiak nork estreinatuko ote zuen Vespa, eta zer da eta, Vespakoak etxera lagundu Maria Jesus. Vespakoa Jose Luis zen, orain bere senarra dena.

100. Motoan zeharka eserita

- **Erref**: OIA-038/003
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:04:17. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Neskak gonarekin ibiltzen ziren eta motoan zeharka esertzen ziren. Oso deserosoa eta arriskutsua zen motoan zeharka joatea. Gero hasi ziren zangolaka joaten.

101. Arreoa

- **Erref**: OIA-038/005
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:10:16. **Bukatu**: 00:13:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:
Arreoa: mutilarekin hastean edo hasi aurretik hasten zen emakumea arreoa prestatzen. Moja joaten zirenek ere egin behar izaten zuten. Ezkondu aurretik arreoa erakusgai jartzen zen, lagunek eta auzokoek ikus zezaten.

102. Zeukaten guztia gurdi batean sartzen zenekoa

- **Erref**: OIA-038/006
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:13:16. **Bukatu**: 00:14:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Garai batean, koltxoiak ere eramaten ziren arreoan. Maria Jesusek ez du ezagutu, baina badaki arreoa gurdian eramaten zela eta soinu bat jartzen ziotela gurdiari denek entzun zezaten. Baserria utzi behar zuten maizterrek San Martin egunean egiten zuten aldaketa, beren gauza guztiak gurdian hartuta.

103. Parterak

- **Erref**: OIA-038/007
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:14:52. **Bukatu**: 00:15:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Gure aurreko bi belaunaldiek dagoeneko medikuarekin erditzen zuten, baina parterak ere ibiltzen ziren oraindik. Orain dela 50 urte arte edo, jaio etxean egiten zen.

104. Atsolorra

- **Erref**: OIA-038/009
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:16:12. **Bukatu**: 00:17:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:
Jaio eta lehendabiziko lana bataiatzea izaten zen. Otordua etxean egiten zen aitabitxi-amabitxiekin. Egun batzuetara, berriz, atsolorra: auzoko emakumeak haur jaioberria ezagutzera joaten ziren.

105. Bular-tiratzaileak

- **Erref**: OIA-038/010
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:17:57. **Bukatu**: 00:20:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Maria Jesusek lehendabiziko haurra izan zuenerako, dagoeneko ospitalean erditzen zen. Hala ere, laugarrena etxean eduki zuen, eta oso esperientzia polita dela dio. Parterak bezalaxe, bular-tiratzaileak ere bazeuden.

106. Parterak: emakume ausartak

- **Erref**: OIA-038/012
- **Iraupena**: 0:01:24. **Hasi**: 00:21:50. **Bukatu**: 00:23:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:
Parterak etxekoandre normalak ziren. Ez zeukaten ikasketa berezirik, baina berezko trebetasuna zuten emakume ausartak ziren. Ama eta haurrarekin egoten zen partera. Izan zitekeen familiakoa -senidea edo gurasoa- eta gero beste etxeetan eta auzoetan berdin ibiltzen zena.

107. Borrokazelaietako sendagilea

- **Erref**: OIA-038/013
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:23:14. **Bukatu**: 00:25:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Kuranderak ere bazeuden. Maria Jesus Gurutzeko Borrokazelaietako amonaz gogoratzen da: fama handia zuen tiakoloiak erraz sendatzen zituelako eta gaixoari begiratu orduko tankera hartzen ziolako zer min zuen. Gela bat edukitzen zuen ukenduz betea.

108. Gaubeilak

- **Erref**: OIA-038/014
- **Iraupena**: 0:03:26. **Hasi**: 00:25:34. **Bukatu**: 00:29:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:
Lehen, jaio eta hil etxean egiten zen. Norbait hiltzen zenean, kanpoko senideak eta auzoak etortzen ziren kandela bedeinkatuekin. Beila egiten zitzaion hil berriari: gorpuaren inguruan kandelak pizten ziren eta arrosarioa errezatu.

109. Heriotza

- **Erref**: OIA-038/015
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:29:00. **Bukatu**: 00:31:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Etxean norbait hiltzen zenean, lagunen eta auzotarren babesa egoten zen. Pena konpartituagoa izaten zen, eta horrek asko laguntzen zuen mina gainditzen. Haurrek jaiotza eta heriotza, dena ikusten zuten etxean, eta horrek bizimodurako asko laguntzen zien.

110. Entierroa

- **Erref**: OIA-038/016
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:31:45. **Bukatu**: 00:33:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:
Hilkutxa biajeetan eraman behar izaten zuten jasotzaileek, txandaka. Gero hamaiketakoa ematen zitzaien kalean eta etxean bazkaria egiten zen gertukoekin. Ez zen batere bazkari alaia izaten.

111. Gobada

- **Erref**: OIA-038/018
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:39:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
"Guara" (gobada): astean behin garbitzen zen arropa eta oso zikina egoten zen; asko marruskatu behar zen. Lehendabizi, egurrezko mahai batean, eta, gero, errekan. Arropa zuria 'gau serenoan' jartzen zuten -oskarbian-. Familia handiak zirenez, zintzilik jartzean, ikusgarria gelditzen zen.

112. Haurtzaroa eta amatasuna

- **Erref**: OIA-038/020
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:41:00. **Bukatu**: 00:44:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Haurtzaroko oroitzapen onak ditu Maria Jesusek: kaleko giroa, batez ere. Kalean jende askorekin eduki zuen harremana eta aberasgarria izan zela dio. Bizitzako gauza garrantzitsuena ama izatea izan dela dio.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-03

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com